

6-8 URTE: HAURRENTZAKO ETXEAK

IeZ proiektua: "Nire etxea, zure etxea: harrerarako zubiak eraikitzen"

1. Justifikazioa

Proiektu hau familia eta kultura aniztasunean hezteko beharretik sortu da, migrazioari buruzko aurreiritziekin hautsi eta kulturartekotasuna aberastasun gisa baloratuz. Itaka Escolapios fundazioaren barne dauden haurrentzako etxeekin lotzen da, Herritartasun Globalaren ikuspegitik gizarte-errealitateen azterketa kritikoa sustatuz: "pentsatu globalean, jardun lokalean". LOMLOEk herritarren gaitasunen garapena eta aniztasunarekiko errespetua nabarmentzen ditu Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik.

2. Helburuak

Ikaskuntza-helburuak:

- Familia- eta kultura-egituren aniztasuna ezagutzea eta baloratzea
- Migrazioarekin lotutako aurreiritzi eta estereotipoei buruzko pentsamendu kritikoa garatzea
- Etxebizitza izateko eskubidea oinarrizko eskubide gisa ulertzea
- Hainbat testuingurutara egokitutako informazio eta narrazio-testuak sortzea

Zerbitzu-helburuak:

- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea harrera-etxeen errealitateaz.
- Migrazioari buruzko aurreiritziak kontrako materialak sortzea
- Eskola-ingurunean harrera- eta inklusio-kultura sustatzea

3. Jakintza-eremu eta-arloak

- **Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza**
- **Gaztelania eta Literatura**
- **Arte Hezkuntza**
- **Balio Zibiko eta Etikoetako Hezkuntza**

4. LOMLOE konpetentzia espezifikoak eta arloekiko lotura

ARLOA	LOMLOE-KO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA
Ingurunearen ezagutza	CE.CM.4 "Norberaren gorputza ezagutzea eta horretaz jabetzea, baita norberaren eta besteen emozio eta sentimenduez ere, ezagutza zientifikoa aplikatuz, ohitura osasungarriak garatzeko eta ongizate fisiko, emozional eta soziala lortzeko"
Gaztelania	CE.LCL.2 "Ahozko testu eta testu multimodal errazak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuenak identifikatuz, oinarrizko forma- eta eduki-alderdiak laguntzarekin baloratuz, ezagutza eraikitzeke eta hainbat komunikazio-helbururi erantzuteke"
Arte Hezkuntza	CE.EA.1 "Hainbat genero, estilo, garai eta kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez, eta aniztasunarekiko jakin-mina eta errespetua garatzea"
Balio zibiko eta etikoen hezkuntza	CE.EV.1 "Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea, eta taldearen eta norberaren ongizatean lagunduko duten ekintzak ezagutzea, errespetatzea eta abiaraztea"

5. Oinarrizko jakintza (LOMLOE Lehen Zikloa)

- **Ingurunearen ezagutza:** Familia. Familia-aniztasuna. Ahaidetasun-harremanak, adiskidetasuna eta bizilagunak. Bizitza gizartean. Inguruneko espazio, baliabide eta zerbitzuak
- **Hizkuntza:** Ahozko ulermena: ideia garrantzitsuenak identifikatzea eta zentzu orokorra interpretatzea, beharrezko inferentziak eginez. Ahozko produkzioa: ahoskera eta intonazio egokiak
- **Arte Hezkuntza:** Sortze-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa eta esperimentazioa. Arte plastikoekin, ikusizko arteekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako lanbideak
- **Balioetan hezte:** Balioak, printzipioak eta arauak: berdintasun eta desberdintasunekiko errespetua; zereginen aurreko erantzukizuna

6. Sekuentziario didaktikoa (10 saio)

Astea	Saioak	Jarduera nagusia	Landutako LOMLOE konpetentziak	Azken produktua	Ebaluazioa

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

1	1-2	"Familia aniztasuna esploratzen" - Etxe motei buruzko ikerketa eta Itaka Escolapios-en aurkezpena	CE.CM.4 "Norberaren gorputza ezagutzea eta horretaz jabetzea, baita norberaren eta besteen emozio eta sentimenduez ere, ezagutza zientifikoa aplikatuz, ohitura osasungarriak garatzeko eta ongizate fisiko, emozional eta soziala lortzeko"	Etxe moten kontzeptu- mapa	Parte-hartzearen behaketa eta aniztasunarekiko errespetua
2	3-4	"Munduko etheen murala" - Muralen sorkuntza kolaboratiboa, kultura ezberdinetako etxebizitzak irudikatuz	CE.LCL.2 "Ahozko testu eta testu multimodal errazak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatuz, oinarrizko forma- eta eduki-alderdiak laguntzarekin baloratuz, ezagutza eraikitze eta hainbat komunikazio-helbururi erantzuteko"	Eskolan jarriko den Erakusketa- murala	Kalitate artistikoaren eta lan kooperatiboaren inguruko errubrika

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

3	5-6	"Aurreiritzien aurkako ikertzaileak" - Benetako esperientziak, albisteak eta migrazioari eta harrerari buruzko elkarrizketak biltzea	CE.EA.1 "Hainbat genero, estilo, garai eta kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez, eta aniztasunarekiko jakin-mina eta errespetua garatzea"	Ikerketa-dossierria eta elkarrizketak	Ikerketa-prozesuaren portfolioa eta erabilitako iturriak
4	7-8	"Migrazioari buruzko mitoak hausten" - Migrazioari eta kulturartekotasunari buruzko aurreiritziak ezeztatzen dituzten benetako datuak bilduko dituen liburua egitea	CE.EV.1 "Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea, eta taldearen eta norberaren ongizatean lagunduko duten ekintzak ezagutzea, errespetatzea eta abiaraztea"	" Migrazioari buruzko mitoak hausten " informaziorako liburua	Edukiaren ebaluazioa, aurkezpena eta emandako mezua
5	9-10	"Munduko ipuinak elkarbanatuz" - Kultura ezberdinetako ipuin tradizionalen bilduma. (egokituta, beharrezkoa izango balitz)	Konpetentzia espezifikoko guztiak integratzea	Kulturen arteko ipuin egokituen bilduma	Ikasitakoari buruzko autoebaluazioa eta aniztasunarekiko konpromisoa

7. Jarduera osagarriak (ordu 1 bakoitza)**A jarduera: "Etxebizitzarako eskubidea: konparatu eta kontrastatu"**

- Munduko hainbat etxebizitza motaren azterketa bisuala, etxebizitza duinerako eskubide unibertsalari buruz gogoeta eginez.

B jarduera: "Kulturartekotasunaren abantailak"

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Komunitate ezberdinetan bizitzeak dituen onurei buruzko eztabaida egituratua, inguruko adibide zehatzekin.

C jarduera: "Itaka Escolapios-ek dituen etxeak ezagutzen"

- Itaka Escolapios-eko langile edo boluntarioren baten aurkezpena entzutea, fundazioaren etxebizitzaren errealitatea ikusiz.

8. Jarduera nagusien garapen zehaztua

1-2 SAIOA: "Familia aniztasuna aztertzen"

Iraupena guztira: 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Familia eta etxe mota ezberdinetako argazkiak biltzea (tradizionala, guraso bakarrekoa, adopziozkoa, harrerakoa, etab.)
- Itaka Escolapioseko etxeei buruzko informazio-fitxa egokitua prestatzea
- Kontzeptu-maparako kartulina handiak sortzea
- Koloretako errotulagailuak eta pegatinak prestatzea
- Itaka Escolapios-ekin harremanetan jarri aurretik, aurkezpen materialak lortzeko edo Itaka Escolapios-en edo Educaren webgunetik deskargatzea.

Saioaren sarrera (10 minutu):

"Gaur gauza zoragarri bat deskubrituko dugu: familia guztiak desberdinak direla eta denak bereziak aldi berean. Munduan hainbat etxe mota eta familia estilotan bizi diren haurrak daude. Itaka Escolapios-etik bultzatzen ditugun etxeak ezagutuko ditugu".

Garapena pausoz pauso:

1. saioa (45 minutu):

- 1. Familiei buruzko ideia zaparrada (15 minutu)**
 - Galdera: "Nolakoa da zure familia? Norekin bizi zara?"
 - Ikasle bakoitzak bere familia deskribatzen du laburki
 - Aipatutako konposizioak arbelean idazten dira
 - Hausnarketa: "Familia guztiak berdinak dira? Hobeagorik dago? EZ"
- 2. Familia argazkien galeria (20 minutu)**

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Familia mota ezberdinen argazkiak erakutsi
- Irudi bakoitza taldeka aipatzen da: "Zer ikusten duzue? Nola uste duzue sentitzen direla?"
- Ikus-sailkapena: familia handiak, txikiak, aitona-amonak, adopziozkoak, etab.
- Hausnarketa: "Familia hauek guztiak dute zerbait komunean: zaindu egiten dira eta elkar maite dute."

3. **Itaka Escolapios** (10 minutu)

- Itaka Escolapios-en etxeetako irudiak erakutsi
- Labur azaldu: "Itaka escolapios-ek etxe bat behar duten haur eta gazteak zaintzen ditu denbora batez"
- Galdera gidatuak: "Zergatik uste duzue haur batzuk Itakaren etxeak behar dituztela?"

2. saioa (45 minutu):

1. **Itaka Escolapios-eko proiektuan sakontzea** (15 minutu)

- Informazio-fitxa egokitua irakurri
- Kokapenak mundu-mapa batean erakutsi
- Oinarrizko kontzeptuak azaltzea: harrera, babesa, aldi baterako zaintza
- Emozioekin konektatzea: "Nola sentituko zinatekete harrera-etxe batera joan beharko bazinate?"

2. **Kontzeptu-mapa sortzea** (25 minutu)

- Ikasgela 4-5 ikasleko taldeetan banatu
- Talde bakoitzak kontzeptu-maparen zati bat sortzen du kartulinarekin
- Erdian: "ETXEBIZITZA MOTAK"
- Erdigune horren inguruan, adarrak izango balira bezala: Familia-etxea, Harrera-etxea, Itaka Escolapios fundazioko etxea, etab.
- Adar bakoitzak marrazkiak eta hitz gakoak izango ditu
- Argazkiak pegatu eta hitzekin lotu

3. **Bateratze momentua** (5 minutu)

- Talde bakoitzak maparen zati bat aurkezten du
- Atal guztiak ikasgelako kontzeptu-mapa handi batean batuko ditugu

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Azken hausnarketa: "Zer ikasi dugu etxeei buruz?"

Beharrezko materialak:

- Familia eta etxebizitzaren argazki ezberdinak
- Itaka Escolapios-en informazio fitxa egokitua
- Kolore ezberdinetako kartulina handiak
- Errotulagailuak, pegatinak, guraizeak
- Munduko mapa
- Kola

Ebaluazioa:

- Errespetuzko parte-hartzea
- Aniztasunarekiko jarreraren behaketa
- Kontzeptu-maparen edukiaren azterketa

3-4 SAIOA: "Munduko etxeen murala"

Iraupena guztira: 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

Irakaslearen aldeko prestakuntza:

- 3m x 2m-ko muraletarako paper zuria lortzea
- Munduko hainbat etxebizitza motaren irudiak biltzea (iglooa, piloteen gainean eraikitako etxeak, riad, favela, Europako pisua, landetxea, etab.)
- Kolore askotako margoak eta pintzelak prestatzea
- Ikasleentzako lanerako arropa antolatzea
- Tamaina ezberdineko etxeen silueta txantiloak prestatzea
- Collage-materiala prest izatea: oihalak, testura ezberdinetako paperak, etab.

Saioaren sarrera (10 minutu):

"Ikastetxeko muralik politena sortuko dugu. Munduan zehar bidai bat egingo dugu, familia ezberdinek dituzten etxe mota guztiak ikusiz. Itaka Escolapios-ek dituen etxe bereziak ere sartuko ditugu bertan. Gure muralak beste haurrei aniztasunaren edertasuna erakutsiko die".

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

Garapena pausoz pauso:

3. saioa (45 minutu):

1. Muralaren plangintza (15 minutu)

- Lurrean zabaldutako muraletarako paper hania erakustea
- Espazioa "kontinenteetan" edo "munduko guneeetan" zatitzea
- Taldeak esleitu: Europa, Afrika, Asia, Amerika, Ozeania, "etxebizitza bereziak"
- Talde bakoitzak bere inguruko etxebizitzaren irudiak ikusten ditu
- Talde bakoitzak bere zonaldean zein etxe sartuko dituen erabakitzea

2. Lehenengo zirriborroak (15 minutu)

- Talde bakoitzak zirriborroak egingo ditu folioetan.
- Banaketa planifikatu: etxe handiak lehen planoan, txikiak atzealdean...
- Gune bakoitzerako kolore nagusiak erabaki
- Irakasleak estilo aniztasuna barne hartzen dela gainbegiratzen du

3. Margolanaren hasiera (15 minutu)

- Atzealdea margotzen hasi: zerua, itsasoa, mendiak (zonaldearen arabera)
- Talde bakoitzak bere gunea izango du, bere paper zatia
- Pintzel handiak erabili atzealde guztia margotzeko
- Irakaslea bertan egongo da guztia gainbegiratzen

4. saioa (45 minutu):

1. Etxebizitzak margotzea(30 minutu)

- Etxe ezberdinak irudikatu lehendik ikusitako argazkiak erreferentzia gisa erabiliz
- Elementuetan, zonalde bakoitzeko xehetasun bereizgarriak sartu: leihoak, ateak, sabai bereziak
- Inguruko elementuak gehitu: zuhaitzak, animaliak, pertsonak
- "Etxebizitza bereziak" taldeak Itaka Escolapios-eko etxeak margotzen ditu, jolasean dauden hurrekin.

2. Xehetasunak eta konexioak (10 minutu)

- Gune ezberdinak lotzeko bideak gehituko ditugu.

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Lotura erakusten duten elementuak barne: hegazkinak, itsasontziak, interneta...
- Etxebizitza moten izenak idaztea
- Talde bakoitzak bere gunea sinatuko du

3. Lanaren ebaluazioa (5 minutu)

- Mural osoaren aurkezpena
- Talde bakoitzak ikasitakoaren azalpena
- Non jarriko den erabaki beharko da, hezkuntza-komunitate osoak ikus dezan

Beharrezko materialak:

- Muraletarako paper handia
- Kolore guztietako margoak
- Tamaina ezberdinetako pintzelak
- Munduko etxebizitzaren erreferentziazko irudiak
- Laneko arropa edo mantalak
- Garbiketa-materiala
- Aukerako txantiloak

Ebaluazioa:

- Lan kooperatiboko errubrika
- Sormenaren behaketa eta kultura-desberdintasunekiko errespetua
- Azken produktuaren ebaluazioa: aniztasuna, kalitate artistikoa, transmititu den mezua.

5-6 SAIOA: "Aurreiritzien aurkako ikertzaileak"

Iraupena guztira: 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Migrazioari eta harrerari buruzko albiste positiboak aukeratzea, adinera egokituz
- Elkarrizketa errazetarako galderak prestatzea (familikoei, bizilagunei, irakasleei egiteko)
- Laguntzeko prest dagoen ikastetxeko familia migratzailearen batekin harremanetan jartzea

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Elkarrizketak erregistratzeko grabagailua edo tableta prestatu
- "Albiste-fitxa" eta "elkarrizketa-fitxa" plantillak sortzea
- Folioak, boligrafoak eta karpeta sailkatzaileak prest izatea

Saioaren sarrera (10 minutu):

" Beste herrialde batzuetatik datozen familiei buruzko gezurrak pentsatzen dituzten pertsonak daude. Detektibeak izango gara eta egia aurkituko dugu. Elkarrizketak egingo ditugu eta albiste onak bilatuko ditugu gure egiaren artxiboa sortzeko".

Garapena pausoz pauso:

5. saioa (45 minutu):

1. Ikerketa-taldeen prestakuntza (10 minutu)

- 3 taldetan banatu: "Albisteen taldea", "Elkarrizketetako taldea", "Esperientzien taldea"
- Talde bakoitzaren misioa azaltzea
- Talde bakoitzaren barruan rolak esleitu: koordinatzailea, idazkaria, bozeramailea

2. Albisteen taldea (15 minutu):

- Migrazioaren inguruan aukeratutako 3-4 albiste positibo irakurri
- "Albiste-fitxak" osatu: Zer gertatu da? Nork lagundu du? Nola bukatu da?
- Hitz positiboak azpimarratu
- Hausnarketa: "Zer irakasten digute albiste hauek?"

3. Elkarrizketetako taldea (15 minutu):

- Elkarrizketak egiteko galderak prestatzea: "Zergatik etorri zinen Espainiara? Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna? Nola lagundu zizuten?"
- Errespetuzko galderak nola egin praktikatzeari
- Grabagailua erabiltzen ikastea
- Nori elkarrizketatuko dioten planifikatzea

4. Esperientzien taldea (15 minutu):

- Atzerrian familia duten ikaskideen esperientzia positiboak biltzea
- Marraski eta esaldiekin fitxak sortzea: "Nire lagun Ahmedek erakutsi zidan..."
- Beste kultura batzuetatik ikasitako tradizioak, janariak, jolasak...

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

6. saioa (45 minutu):

1. Ikerketa lana (25 minutu)

- Elkarrizketa taldea: Aurretik parte hartzeko prest dagoela esan digun familiari elkarrizketa egitea.
- Albisteen taldea: Albiste positibo gehiago bilatu Interneten (irakaslearen laguntzarekin)
- Esperientzien taldea: Fitxak adibide gehiagorekin osatu

2. Datuak bilduz (15 minutu)

- Talde bakoitzak bere informazioa antolatzen du
- Hiru karpeta sortuko ditugu: "Pozten gaituzten berriak", " Irakasten diguten berriak", "Aberasten gaituzten esperientziak" izenak emanez.
- Karpetak marrazki politekin apaindu.

3. Lehen ebaluazioa (5 minutu)

- Talde bakoitzak bere lanaren aurrerapena egiteun du
- Hausnarketa: "Zer deskubritu dugu?"
- Informazio hau, liburuan nola plazaratuko dugun planifikatzea

Beharrezko materialak:

- Aukeratu eta egokitutako berriak
- Ikerketa-fitxen plantillak
- Grabagailua edo tableta
- Idazteko materiala
- Sailkatzeko karpetak
- Irakaslearen laguntzaz erabiltzeko interneterako sarbidea

Ebaluazioa:

- Ikerketa-trebetasunen behaketa
 - Egindako galderen kalitatea
 - Elkarrizketetan errespetuzko jarrerak.
-

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

7-8 SAIOA: "Libro: Rompiendo mitos"

Iraupena guztira: 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Liburu formatua prestatu: erditik tolestutako folio grapatuak (adibidez)
- Adinera egokitutako migrazioari buruzko mitoak biltzea
- Orrialdeetako plantilla prestatzea: ezkerrean "MITOA" eta eskuinean "ERREALITATEA"
- Enkoadernatzeko materiala biltzea
- Migrazioari buruzko datu erreal eta positiboen adibideak prestatzea
- Ilustrazioetarako material artistikoa prest izatea

Saioaren sarrera (10 minutu):

" Beste herrialde batzuetatik datozen familiei buruzko egia ulertzen lagunduko digun liburu berezi bat sortuko dugu. Gure liburuak 'Mitoak hausten' izena izango du eta ikertu dugun informazio guztia erabiliko dugu osatzeko".

Garapena pausoz pauso:

7. saioa (45 minutu):

1. **Liburuaren egitura** (15 minutu)
 - Liburuaren formatua erakutsi
 - Egitura azaldu: azala, aurkibidea, 6 orrialde edukiko ditu, atzealdea.
 - Izenburua erabakitzea
 - Ardurak banatu: azala, barruko orriak, ilustrazioak...
2. **Landu beharreko mitoen aukeraketa** (15 minutu)
 - Mitoen zerrenda aurkeztea (egokituta): "Pertsona migratzaileek ez dute hizkuntza ikasi nahi", "Lapurtzera datoz", "Hemen lanik egin gabe, gu baino hobeto bizi dira" etab.
 - Bozketa egingo da liburuan zeintzuk sartu adosteko
 - Mito bakoitza gezurtaratuko duen informazioa bilatu
3. **Lankidetzan sortutako idatzia** (15 minutu)

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Ikasgela bikoteetan banatu eta bikote bakoitza orrialde bateko arduradun izango da.
- Ezkerraldean: "Pertsona batzuek pentsatzen dute..."
- Eskuinaldean: "Baina errealitatea da..." datuak erabiliz.

8. saioa (45 minutu):

1. Liburuaren ilustrazioa (25 minutu)

- Bikote bakoitzak bere orrialdea irudikatzea, mezua babesten duten marrazkiekin
- Guztion artean izenburu erakargarria izango duen Azala sortzea.
- Gehitu egin dituzten elkarrizketerakon argazkiak (baimena lortuko balute)
- Datu positiboak dituzten grafiko errazak sartu

2. Muntaketa eta berrikuspena (15 minutu)

- Orri guztiak orden logikoan kokatzea
- Ortografia eta koherentzia berrikustea
- "Sortzaileak" zeintzuk diren aipatu talde argazki batekin
- Enkoadernatu grapagailuarekin eta beharrezkoa balitz zinta batekin indartu.

3. Liburuaren aurkezpena (5 minutu)

- Liburu osoa ozen irakurri
- Bikote bakoitzak bere orrialdea aurkezten du
- Hausnarketa: "Nola lagun diezaieke gure liburuak beste pertsona batzuei?"
- Banaketa eta zabalkundea planifikatzea

Beharrezko materialak:

- Libururako orriak
- Enkoadernaziorako materiala eta grapagailuak
- Marrazketarako materialak
- Orrialde bakoitza egiteko txantiloia
- Aurretiazko ikerketaren datuak
- Baimendutako argazkiak

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

Ebaluazioa:

- Idatzizko edukiaren kalitateko errubrika
- Aurkeztutako mitoaren eta errealitatearen arteko koherentzia
- Bikoteka eman den elkarlanaren behaketa

SAIOA 9-10: "Munduko ipuinak partekatzeko"

Iraupena guztira: 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

Irakaslearen alde zurrerko prestakuntza:

- Herrialde ezberdinetako 8-10 ipuin labur aukeratu. (bilaketa internetean egin)
- Adinera egokitutako irakurtzeko bertsiok prestatu
- Herrialde bakoitza kokatzeko mapamundi handi bat lortu.
- Ipuin-txoko bat sortzeko materialak prestatu
- Jatorri ezberdineko familiekin harremanetan jarri, ipuinak partekatu ahal izateko.
- Ipuinen audioak sortzeko grabazio-materiala prestatu

Saioaren sarrera (10 minutu):

"Ipuinak, munduko herriek egiten dituzten opariak dira. Herrialde bakoitzak balio garrantzitsuak irakasten dituzten istorio ederrak ditu. Munduko ipuinen liburutegi propioa sortuko dugu, beste haur batzuekin eta Itaka Escolapios-eko etxeekin elkarbanatzeko".

Garapena pausoz pauso:

Saioa 9 (45 minutu):

1. **Bidai bat munduko ipuinetan zehar** (20 minutu)
 - Kontinente ezberdinetako 3 ipuin labur irakurri
 - Ipuin bakoitzaren ondoren, herrialdea mapamundin kokatu
 - Hausnarketa bultzatu: "Zer irakasten digu ipuin honek? Ezagutzen dugun ipuin baten antza al du?"
 - Balio unibertsalak identifikatzea: adiskidetasuna, eskuzabaltasuna, ausardia, etab.
2. **Ikerketa familian** (15 minutu)
 - Ikasle bakoitzak etxean kontatzen dizkioten ipuinetan pentsatzen du

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Beste herrialde batzuetako familiarik baldin badago, euren jatorrizko herrialdeko ipuinen inguruan galdetu.
- Fitxa osatu: "Nire familiaren ipuina" izenburua, herrialdea, pertsonaia nagusiak
- Familietan egingo diren elkarrizketak planifikatzea hurrengo saiorako

3. **Bildumaren diseinua** (10 minutu)

- Bildumaren formatua erabaki: liburu ilustratua, audio- ipuinak, edo biak egingo diren.
- Rolak esleitu: ilustratzaileak, narratzaileak, antolatzaileak
- Azala sortzea: "Munduko ipuinak gure ikastetxetik"

10. saioa (45 minutu):

1. **Familia ipuinen bilduma** (20 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere familian kontaktzen den ipuin bat kontaktzen du
- Ikaskideek interesgarrienen notak hartzen dituzte
- Bilduman sartuko diren ipuinen bozketa egin
- Ipuin bakoitzaren jatorrizko herrialdeak mapan kokatu

2. **Bildumaren sorrera** (20 minutu)

- Taldeetan banatu: talde bakoitzak ipuin bat egokitzen du bere adinerako
- Ipuin bakoitzerako ilustrazio errazak sortu
- Ipuinak entzuteko bertsioak grabatu (audio-ipuinak lortzeko)
- Ipuin hauek kontinenteen edo lantzen duten baloreen arabera ordenatu

3. **Aurkezpena eta itxiera** (5 minutu)

- Bilduma osoa aurkeztu
- Azken hausnarketa: "Zer ikasi dugu beste herrialde batzuetako ipuinetatik?"
- Bilduma Itaka Escolapios-en etxeetara bidaltzea planifikatzea
- Ikasgelan "munduko ipuinen txokoa" sortzea

Beharrezko materialak:

- Ipuin tradizional egokituen aukeraketa
- Mapamundi handia

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Ilustrazio-materiala
- Audio-ipuinak grabatzeko grabagailua
- Folioak eta enkoaderatzeko materiala
- "Nire familiaren ipuina" fitxak

Ebaluazioa:

- Irakurmenaren eta ahozko adierazpenaren ebaluazioa
- Beste kultura batzuekiko errespetuaren eta jakin-minaren behaketa
- Egindako egokitzapen eta ilustrazioen kalitatea
- Autoebaluazioa: "Nola aldatu dugu beste kultura batzuk ikusteko dugun modua?"